




BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun **372,9 milioi ingeles** hiztun natibo daude munduan, eta hizkuntza hau negozioetarako, bidaiatzerako orduan, lana bilatzean... erabiltzen da. **Munduan gehien** erabiltzen den **hizkuntza** da inglesa. Ondorioz, esan dezakegu inglesa oso garrantzitsua dela eta denori ikastea komeni zaigula.



Momentu honetan, akademia asko daude ingelesez ikasteko baina guk zerbait berria egitea pentsatu dugu eta klaseak online bidez egitea bururatu zaigu.

Ikasleen beharretara modu zabalenean egokitu nahi dugu, ahalik eta aukera eta erreztasun gehien emanez. Horrela, klaseak online eskeintzeko prestatuak gaude.

Ingelesezko online akademia bat izatea ideia oso **interesgarria** eta etorkizun handiko negozioa izan daiteke. Lehenik eta behin, online egoteak mundu osoko ikasleei irakasteko aukera ematen du, eta horrek merkatu zabala eskaintzen du. Hau da, ez zara leku fisiko batean mugatua eta mundu osoko jendearekin lan egin dezakezu, maila eta beharrian desberdinak dituzten ikasleekin.

Online ikasteak eskaintzen duen **abantaila** handiena ikasleek euren erritmoan eta ordutegian ikas dezakete, eta ez dute ikastetxera joan behar. Horrek aukera ematen die bizitzan beste gauza asko dituztenei ere ingelesa ikasteko. Gainera, online klaseek askotan baliabide dibertigarriak eta interaktiboak erabiltzen dituzte, hala nola bideoak, jokoak eta ariketa praktikoak, ikaskuntza are gehiago motibatzen duena.



Beste abantaila bat da ikaskuntza pertsonalizatzeko aukera izatea. Hori da, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako ikastaroak eskaintzeko aukera dagoela.

Gure akademia beste akademietatik desberdintzeko **logo** pertsonalizatu bat sortu dugu, hasieran ikus daitekeena.